



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAINTRASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

HEDAKUNTZAREN ETA TRANSFERENTZIAREN  
ARLOKO ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE PROYECCIÓN  
Y TRANSFERENCIA

**ERABAKI PROPOSAMENA, GOBERNU  
KONTSEILUAREN 2013ko AZAROAREN 14ko  
BILERARAKO: ONARTZEA UNIVERSIDAD DEL  
PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO  
UNIBERTSITATEAREN, DEUSTUKO  
UNIBERTSITATEAREN, MONDRAGON  
UNIBERTSITATEAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN  
ARTEKO OINARRIZKO HITZARMENA,  
EUSKADIKO 2013-2016ko BAKE ETA BIZIKIDETZA  
PLANARI EUSKAL UNIBERTSITATEEK EGIN  
DIEZAIOKETEN EKARPEN PARTEKATUA  
DISEINATU, GARATU ETA GAUZATZEKO DENA.**

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) gizartearen zerbitzura dagoen erakundea da, goi mailako irakaskuntza eskaintzen duena, irakaskuntza, ikerkuntza, ikasketa, kultura eta unibertsitate hedakuntzaren bidez. Erakundearen helburuetako bat da unibertsitate zabalkuntza eta hedakuntza bultzatzea, batez ere gizarte eta kultura mailen arteko aldeak gutxitzea zuzenduak, bai eta bizitza politiko, kultural eta sozialean hobeto parte hartzeko baldintzak sortzea zuzenduak ere. Halaber, Estatutuen arabera, elkarbizitza demokratikoa eta euskal gizartearen garapen jasangarri eta bidezkoa sustatuko ditu, errefusatuta terrorismo eta biolentzia mota guztiak.

Eusko Jauriaritzak Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia du, eta idazkaritza horren eginkizuna da bakea behin betiko eta modu itzulezinean sendotzen laguntzea eta bizikidetzaren sozial eta politikoaren hobekuntza sustatzea.

Eusko Jauriaritzaren 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planeko ekimenetako batek euskal unibertsitateen ekarpen partekatua eskatzen du, bakea eta gizartearen elkarketa finkatzeko egungo prozesurako. Hori egingo da oinarri zientifikoa eta akademikoa duen proiektu baten bidez, bakearen eta bizikidetzaren arloan aurreratzea ahalbidetzeko bokazio praktikoa eta zehatza izango duena.

Proposatzen den hitzarmenaren helburua da euskal unibertsitateen eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren lankidetzarako eremua zehaztea, 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planeko 11. ekimenarekin bat etorriko liratekeen proiektu bat edo batzuk egiteko. Proiektu horiek hitzarmen espezifikoaren bidez gauzatuko dira.

**PROPUESTA DE ACUERDO QUE SE SOMETE AL CONSEJO DE GOBIERNO DE 14 DE NOVIEMBRE DE 2013 PARA LA APROBACIÓN DEL ACUERDO MARCO ENTRE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, LA UNIVESIDAD DE DEUSTO, MONDRAGON UNIBERTSITATEA Y LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNDIAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL DISEÑO, DESARROLLO Y EJECUCIÓN DE LA CONTRIBUCIÓN COMPARTIDA DE LAS UNIVESIDADES VASCAS AL PLAN DE PAZ Y CONVIVENCIA DE EUSKADI 2013-2016**

La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea es una institución de Derecho Público, al servicio de la sociedad, que presta el servicio de la enseñanza superior mediante la docencia, la investigación, el estudio, la proyección cultural y universitaria. Entre sus fines está la difusión y proyección universitarias, orientadas en particular a la reducción de las desigualdades sociales y culturales, y a la creación de las condiciones que permitan una mejor participación en la vida política, cultural y social, y de acuerdo con sus Estatutos, contribuirá a la promoción de la convivencia democrática y se compromete con el desarrollo justo y sostenible de la sociedad vasca, con rechazo de todo tipo de terrorismo y violencia.

Que el Gobierno Vasco cuenta con una Secretaría General del Paz y Convivencia para contribuir a consolidar de modo definitivo e irreversible la paz y promover la mejora de una convivencia social y política.

Que el Plan de Paz y Convivencia 2013-2016 de Euskadi contempla entre sus iniciativas una contribución compartida de las universidades vascas al actual proceso de consolidación de la paz y el encuentro social, a través de un proyecto de base científica y académica con vocación práctica y concreta de facilitar el progreso en materia de paz y convivencia.

Mediante el acuerdo que se propone se pretende establecer un marco de colaboración entre las tres universidades vascas y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la realización de uno o varios proyectos que encajarían en la iniciativa número once prevista en el Plan de Paz y Convivencia 2013-2016 del



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAJINTASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

HEDAKUNTZAREN ETA TRANSFERENTZIAREN  
ARLOKO ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE PROYECCIÓN

Gobierno Vasco, que se concretarán a través de acuerdos específicos.

Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendurako Arautegiko hirugarren kapitulua (2009/05/26ko EHAA) hitzarmenen tramitazio eta onarpen prozedurari buruzkoa da, eta dio hitzarmenaren ezarpen eremua campusaz gaidikoa denean, onarpenerako aurkeztu beharko dela.

El Reglamento de Funcionamiento del Consejo de Gobierno (BOPV 26/05/2009) dedica su capítulo tercero a la tramitación y aprobación de convenios, estableciendo que aquellos cuyo ámbito de aplicación sea superior a un Campus se someterán a la aprobación del mismo.

Horrela, bada, UPV/EHUko errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko erabakiak, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzekoak (2013ko otsailaren 13ko EHAA, 31. zk) emandako eskumenen babesean, ondokoa aurkezten diot Gobernu Kontseiluari:

Por lo expuesto, y en virtud de las competencias que me atribuye la Resolución de 30 de enero de 2013, del Rector de la UPV/EHU, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su equipo de gobierno y de delegación de competencias (BOPV 13/02/2013), elevo al Consejo de Gobierno la siguiente:

#### ERABAKI PROPOSAMENA

#### PROPUESTA DE ACUERDO

**Lehenengoa.-** Onartzea Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko oinarritzko hitzarmena, Euskadiko 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzeta Planari euskal unibertsitateek egin diezaioketen ekarpen partekatua diseinatu, garatu eta gauzatzeko dena.


**Primero.-** Aprobar el Acuerdo Marco de Colaboración entre la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, la Unversidad de Deusto y Mondragón Unibertsitatea y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el diseño, desarrollo y ejecución de la contribución compartida de las universidades vascas al Plan de Paz y Convivencia de Euskadi 2013-2016.

**Bigarrena.-** Baimena ematea hitzarmen espezifikoak egiteko, betiere kide anitzeko organo honen eskumenekoak badira eta txostenak aldekoak. Nolanahi ere, egindako hitzarmenen berri eman behako zaio Gobernu Kontseiluari. Bestelako hitzarmenen kasuan kontseiluari edo dagokion organo eskudunari helaraziko zaizkio, onar ditzan, bai eta arautegi espezifikoak hala egin behar dela xedatzen duenean ere.

**Segundo.-** Autorizar los convenios específicos de desarrollo, siempre y cuando sean de la competencia de este órgano colegiado y los informes sean favorables, debiendo informarse al Consejo de Gobierno de su suscripción. En caso contrario, deberán ser elevados al Consejo u órgano competente para su aprobación, así como cuando su normativa específica lo imponga.

Leioa, 2013ko azaroaren 7a.

Leioa, 7 de noviembre de 2013.



Amaia Maseda García  
Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea  
Vicerrectora de Proyección y Transferencia

**OINARRIZKO HITZARMENA, UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN, DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREN, MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARTEKOA, EUSKADIKO 2013-2016ko BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANARI EUSKAL UNIBERTSITATEEK EGIN DIEZAIOKETEN EKARPEN PARTEKATUA DISEINATU, GARATU ETA GAUZATZEKO DENA.**

---

\_\_\_\_\_, 2013ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_a

### **ALDEAK**

**Iñigo Urkullu Rementeria jauna**, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN izenean eta haren ordezkari.

**Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna**, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO errektorea, aipatutako unibertsitatearen izenean eta haren ordezkari, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek emandako eskumenen babesean (IFK: Q4818001B; egoitza: Sarriena auzoa, z.g. Leioa-Bizkaia).

**Jose Maria Guibert Ucin jauna**, DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO errektorea, aipatutako unibertsitatearen izenean eta haren ordezkari, Deustuko Unibertsitatearen Estatutuek emandako eskumenen babesean (IFK: 4868004E; egoitza: Unibertsitate etorbidea, 24. 48007 Bilbo-Bizkaia).

**Iosu Zabala Iturralde jauna**, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO errektorea, aipatutako unibertsitatearen izenean eta haren ordezkari, Mondragon Unibertsitatearen Estatutuek emandako eskumenen babesean (IFK: F20560991 ; egoitza: Goiru kalea, Arrasate-Gipuzkoa).

Alde guztiek hitzarmen hau sinatzeko beharrezkoa den gaitasun osoa aitortzen diote elkarri eta, horretarako ondokoa

### **ADIERAZI DUTE**

Eusko Jaurlaritzak Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortu du X. legegintzaldian, egitura bakar batean biltzeko aurreko Biktimen Zuzendaritza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza. Idazkaritza

Nagusi horren eginkizuna da bakea behin betiko eta modu itzulezinean sendotzen laguntzea eta bizikidetza sozial eta politikoaren hobekuntza sustatzea.

2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Plana aurkeztu zien lehendakariak euskal unibertsitateetako errektoreei 2013ko ekainaren 19an, proiektu horrek gizartearen eta politikaren arloetan partekatutako ibilbide bat proposatzen baitu. Planean, guztira, 18 ekimen aurkezten dira, lehentasunezko hiru jardun arlotan banaturik, eta beste ekimen bat zeharrekoa.

2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Planeko ekimenetako bat, hamaikagarrena, euskal unibertsitateei dagokie. Ekimen horrek unibertsitateen ekarpen partekatua eskatzen du, bakea eta gizartearen elkarketa finkatzeko egungo prozesurako. Unibertsitateen ekarpen horrek gure bizikidetzak gaur egun dituen funtsezko eta lehentasunezko erronka batzuetan oinarritu behar du, iraganera, orainaldira edo etorkizunera begira. Gainera, lan horren gaia eta eremu zehatza unibertsitateekin elkarrizketatuz eta adostuz identifikatuko dira. Ekarpen horrek ekarri behar du berekin oinarri zientifikoa eta akademikoa duen proiektu bat, bakearen eta bizikidetzaren arloan aurreratzea ahalbidetzeko bokazio praktikoa eta zehatza duena, eta 2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Planean adierazitako ezaugarri batzuk bildu beharko dituen eraginkorra izateko.

Hitzarmen honen helburua da aipatutako unibertsitateen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lankidetzarako eremu bat zehaztea, aipatutako xedea lortze aldera, bai eta alde bakoitzak horretarako jarriko dituen baliabideak egokiro koordinatu ahal izateko oinarriak ezartzea ere.

Adierazitakoaren bidetik, aldeek lankidetza hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausulen arabera:

## **KLAUSULAK**

### **LEHENENGOA.- Helburua**

Hitzarmen honen helburua da Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lankidetzarako eremua zehaztea, 2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Planeko 11. ekimenean

adierazitako ekarpen partekatua diseinatu, garatu eta gauzatzeko proiektu baten edo batzuen bidez.

### **BIGARRENA.- Proiektuak definitzea**

Lan talde bat eratuko da proiektu bakoitzerako, unibertsitateek izendatuko dituzten ikertzaileek osatua (unibertsitate bakoitzak bat), proiektua definitzeaz arduratuko dena. Taldeak aldiro egingo ditu bilerak, nahiz eta hori ez den izango traba talde horretako ikertzaile bik edo gehiagok beren aldetik bilerak egin ditzaten.

Edonola ere, proiektu guztiek bete beharko dituzte 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planeko 11. ekimeneko 3. atalean aipatzen diren ezaugarri eta irizpide hauek:

- Proiektuak bokazio zehatza eta praktikoa izango du nabarmenki. Ildo horretatik, aplikazio proposamen batean gauzatuko da.
- Proiektuak dimentsio zentzuduna izan beharko du, ez neurrigabea, ezta handiustekoa ere, eta haren gizarte erabileran eta euskal unibertsitateen artean sinergiak sortzeko ahalmenean oinarrituko da.
- Proiektu hau diseinatzeko, egiteko eta aplikatzeko prozesuan gizarte zibilak eta haren gizarte eragileek lagundu ahal izango dute.
- Eusko Jaurlaritzak bakearen eta bizikidetzaren arloan Europar Batasunarekin nahiz Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioarekin ezar dezakeen elkarlaneko programen esparruan nazioarteko lankidetzaren lerroak eta beste unibertsitateekiko lankidetzaren lerroak ezarri ahal izateko aukera egongo da.

Proiektu bakoitzetik aplikazio edo ekintza proposamenak aterako dira, bat egingo dutenak ekarpenaren izaerarekin.

Bake eta Bizikidetzaren Planak mugatutako 2013-2016 aldian egin beharko dira proiektu guztiak.

### **HIRUGARRENA.- Proiektuak gauzatzea**

Proiektuak abian jartzeko, eta beharrezkoa izanez gero, tresna juridikoak bideratuko dira kasu bakoitzean, betiere aldean aurrekontuetan horretarako dirurik badago, eta egin beharreko tramite guztiak egin ondoren.

### **LAUGARREN.- Aldeen konpromisoak**

Unibertsitateek, batetik, itzal handiko irakasle eta ikertzaileak izendatuko dituzte, hitzarmen honen helburu diren proiektuak garatu eta gauzatu ditzaten; eta, bestetik, horien eskura jarriko dituzte beren baliabide bibliografikoak, datu baseak, saretarako sarrera eta bestelako baliabideak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez, eskuragarri jarriko ditu bere baliabide materialak, bibliografikoak, datu baseak, saretarako sarrera eta beharrezkoak izan daitezkeen gainerako guztiak, betiere aldean ekarpenen baliokidetasun irizpideei jarraituta. Era berean, proiektu bakoitza diseinatu, garatu eta gauzatzeko beharko diren baliabide ekonomikoak jarriko ditu, horretarako egingo den hitzarmen edo tresna juridikoan jasoko denaz bat.

### **BOSGARRENA.-Jarraipen Batzordea**

Jarraipen Batzorde bat eratuko da, unibertsitate bakoitzeko errektoreorde batek eta Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak osatua.

Hauek dira aipatutako batzordearen eginkizunak:

- Hitzarmen honen testuinguruan egingo diren proiektuak onartzea.
- Oinarrizko hitzarmen honen jarraipena egitea, hitzarmena interpretatzea eta hitzarmena aplikatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea. Ikertzaileek planteatzen diren gaiez arduratzea eta proiektu bakoitzaren garapenaren berri izatea.

Jarraipen Batzordearen araubidea bat etorriko da aplikatuko zaizkio Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak kide anitzeko organoetarako ematen dituen arauekin (aipatutako legeko II. titulua, II. kapitulua).

### **SEIGARRENA.- Iraupena**

Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera egongo da indarrean, 2016ko abenduaren 31ra arte. Hitzarmena luzatu ahal izango da, aldeek hala adostu eta idatziz adierazten badute.

### **ZAZPIGARRENA.- Hitzarmena baliogabetzea**

Ez da aurreikusten hitzarmena baliogabetzeko arrazoi berezirik; hortaz, hitzarmenak baliogabetzeko arrazoi orokorrak izango dira aplikagarri.

Aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, aldeek hitzarmen hau sinatu dute, lau aletan eta orri guztietan, idazpuruan adierazitako toki eta datan.

<p>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN IZENEAN</p> <p>Iñigo Urkullu Rementeria jauna Eusko Jaurlaritzako lehendakaria</p>	<p>EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN IZENEAN</p> <p>Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna Errektorea</p>
<p>DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREN IZENEAN</p> <p>Jose Maria Guibert Ucin jauna Errektorea</p>	<p>MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN IZENEAN</p> <p>Iosu Zabala Iturralde jauna Errektorea</p>

**ACUERDO MARCO ENTRE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO/DEUSTUKO UNIBERTSITATEA, MONDRAGON UNIBERTSITATEA Y LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL DISEÑO, DESARROLLO Y EJECUCIÓN DE LA CONTRIBUCIÓN COMPARTIDA DE LAS UNIVERSIDADES VASCAS AL PLAN DE PAZ Y CONVIVENCIA DE EUSKADI 2013-2016**

---

En \_\_\_\_\_ a, \_\_\_\_\_ de 2013

**INTERVIENEN**

El Sr. D. **Iñigo Urkullu Rementería**, Lehendakari del Gobierno Vasco, en nombre y representación de la **ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI**.

El Sr. Dr. D. **Iñaki Goirizelaia Ordorika**, en calidad de Rector Magnífico de la **UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA** (en adelante UPV/EHU), con C.I.F. número Q4818001B y domicilio social en Barrio Sarriena s/n, de Leioa (Bizkaia), en nombre y representación de la misma, en virtud de las competencias que le atribuyen los Estatutos de la UPV/EHU.

El Sr. Dr. D. **José María Guibert Ucin** en nombre y representación de la **UNIVERSIDAD DE DEUSTO/DEUSTUKO UNIBERTSITATEA**, con C.I.F. número R4868004E y domicilio social en Avenida de las Universidades, 24, Bilbao (Bizkaia), en nombre y representación de la misma, en virtud de las competencias que le atribuyen los Estatutos de la Universidad de Deusto.

El Sr. Dr. D. **Iosu Zabala Iturralde** en nombre y representación de **MONDRAGON UNIBERTSITATEA**, con C.I.F. número F20560991 y domicilio social en Goiru kalea, Arrasate (Gipuzkoa), en nombre y representación de la misma, en virtud de las competencias que le atribuyen los Estatutos de Mondragon Unibertsitatea.

Todas las partes manifiestan reconocerse plena capacidad para suscribir el presente Convenio y a tales efectos,

**EXPONEN**



Que el Gobierno Vasco, en su X Legislatura, ha decidido dotarse de una Secretaría General de Paz y Convivencia que integra las anteriores direcciones de Víctimas y de Derechos Humanos. La misión de dicha Secretaría General es contribuir a consolidar de modo definitivo e irreversible la paz y promover la mejora de una convivencia social y política.

Que el 19 de junio de 2013 el Lehendakari presentó a los Rectores de las Universidades Vascas el Plan de Paz y Convivencia 2013-2016, proyecto que presenta un recorrido pensado para ser social y políticamente compartido. En el mismo se presentan un total de 18 iniciativas distribuidas en tres ámbitos de actuación preferente, además de una de carácter transversal.

Que entre las iniciativas del Plan de Paz y Convivencia 2013-2016 se contiene una, la Iniciativa 11, que atañe a las Universidades Vascas y que recaba su contribución compartida al actual proceso de consolidación de la paz y el encuentro social. Esta contribución deberá centrarse en alguno de los retos medulares y prioritarios que hoy tiene nuestra convivencia, tanto mirando al pasado, como al presente o al futuro. Además, la identificación de la temática y ámbito concreto de este trabajo se realizará mediante el diálogo y el acuerdo con las propias universidades. Esta contribución debe de traducirse en un proyecto de base científica y académica con vocación práctica y concreta de facilitar el progreso en materia de paz y convivencia debiendo de reunir para su eficacia determinadas características que contempla el propio Plan de Paz y Convivencia 2013-2016.

El objeto del presente Convenio es establecer un marco de colaboración entre las Universidades firmantes y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en orden a la consecución del cometido descrito, fijando las bases de una adecuada coordinación de los recursos que cada una de las partes destinará a tal fin.

Por lo expuesto las partes acuerdan suscribir el presente Convenio con arreglo a las siguientes

## CLÁUSULAS

### **PRIMERA.- Objeto**

El Objeto del presente Convenio es establecer un marco de colaboración entre la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, la Universidad de Deusto/Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el diseño, desarrollo y ejecución de la contribución conjunta prevista en la iniciativa 11 del Plan de Paz y Convivencia de Euskadi 2013-2016, a través de uno o varios proyectos.

### **SEGUNDA.- Definición de los proyectos**

Para la definición de cada uno de los proyectos, se constituirá un grupo de trabajo integrado por una persona investigadora designada por cada Universidad. El grupo se reunirá periódicamente, sin perjuicio de otros contactos que mantengan sus investigadores e investigadoras de forma bilateral o multilateral.

En todo caso, cada proyecto se ajustará a las características y criterios establecidos en el apartado 3 de la Iniciativa 11 del Plan de paz y Convivencia 2013-2016, que señala lo siguiente:

- El proyecto tendrá una vocación eminentemente concreta y práctica. En este sentido, se plasmará en una propuesta de aplicación.
- El proyecto deberá tener una dimensión cabal, no desproporcionada ni pretenciosa, y estará centrado en su utilidad social y su capacidad de suscitar sinergias entre las universidades vascas.
- El proceso de diseño, elaboración y aplicación de este proyecto estará abierto a la posibilidad de colaboración de la sociedad civil y sus agentes sociales.
- Podrá contemplarse la posibilidad de establecer líneas de cooperación internacional y con otras universidades en el marco de los programas de trabajo conjunto que, en materia de

paz y convivencia, pueda establecer el Gobierno Vasco, tanto dentro de la Unión Europea como con el Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos.

De acuerdo con el carácter de la contribución, cada proyecto dará lugar a las correspondientes propuestas de aplicación o acción.

Todos los proyectos se ajustarán necesariamente al periodo temporal 2013-2016 determinado en el Plan de Paz y Convivencia.

### **TERCERA.- Ejecución de los proyectos**

Para la puesta en marcha de los proyectos se formalizarán, si fuera preciso, los instrumentos jurídicos que, en cada caso, procedan y que quedarán sujetos a la disponibilidad presupuestaria de cada una de las partes y a la tramitación preceptiva correspondiente.

### **CUARTA.- Compromisos de las partes**

Las Universidades firmantes se comprometen a colaborar con la participación de personal docente e investigador de reconocido prestigio en su ámbito de actuación, miembros de dichas universidades, que será el encargado del desarrollo y ejecución de los proyectos objeto del presente Convenio, además de con los recursos bibliográficos, bases de datos, acceso a redes y otros recursos a su disposición.

La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se compromete a poner a su disposición, a través de la Secretaría General para la Paz y la Convivencia, los medios materiales, informáticos, bibliográficos y bases de datos, acceso a redes y cuantos otros resulten precisos, desde criterios de equivalencia entre las aportaciones de las partes, así como los recursos económicos que en su caso sean necesarios para el diseño, desarrollo y ejecución de cada proyecto, en los términos en los que se acuerde en cada convenio o instrumento jurídico que a tal fin se formalice.

#### **QUINTA.- Comisión de Seguimiento**

Se crea una Comisión de seguimiento, integrada por un Vicerrector o Vicerrectora de cada Universidad firmante y por el Secretario General de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco.

Corresponde a esta Comisión:

- Aprobar los proyectos a llevar a cabo en el marco de este Acuerdo.
- Realizar el seguimiento del presente Acuerdo Marco, así como su interpretación y la resolución de las dudas que puedan surgir de su aplicación.
- Atender las cuestiones que les sean planteadas por los investigadores e investigadoras, seguirá el desarrollo de cada proyecto.

El régimen jurídico de la Comisión se ajustará a las normas sobre Órganos Colegiados contenidos en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

#### **SEXTA.- Duración**

El presente Convenio estará vigente desde su firma hasta el 31 de diciembre de 2016. Podrá ser prorrogado de mutuo acuerdo de las partes formalizado por escrito.

#### **SÉPTIMA.- Resolución**

No se prevén causas especiales de resolución siendo por tanto las que operan con carácter general para los Convenios.

Y en prueba de conformidad, las partes firman cuatro ejemplares del presente Convenio, en todas sus hojas, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

<p>POR LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI</p>     <p>Iñigo Urkullu Rementeria Lehendakari del Gobierno Vasco</p>	<p>POR LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA</p>     <p>D. Iñaki Goirizelaia Ordorika Rector</p>
<p>POR LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO/DEUSTUKO UNIBERTSITATEA</p>     <p>D. José María Guibert Ucin Rector</p>	<p>POR MONDRAGON UNIBERTSITATEA</p>     <p>D. Iosu Zabala Iturralde Rector</p>